



LIBURUA

Animaliengandik ikasten



ISTORIOEN ZOOA

EGILEA: GIANNI RODARI

ILUSTRAZIOAK:

MAITE MUTUBERRIA

ITZULPENA: UXOA IÑURRIETA

A FIN DE CUENTOS, 2020

XABIER ETXANIZ ERLER

2020an 100 urte bete dira Gianni Rodari, irakasle, pedagogo, borrokalari eta idazlea jaio zela eta 40 gure artetik joan zenetik eta, hala ere, bere lanek ez dute inolako gaurkotasunik galdu.

Hemen dugun *Istorioen zooa* hau A fin de cuentos argitaletxe bilbotarraren eskutik etorri zaigu eta eskertzekoa da egin duten edizio zaindua; azal gogorra eta itzulpen eta ilustrazio aldetik aparteko lana.

Izenburuak iradoki bezala hainbat istoriok osatzen dute liburua, eta denak zoo baten barruan gertatzen dira. Mino eta Ricardo mutikoak azken honen arreba nagusiarekin joan dira zoorra eta elkarri erakusteko zein ausartak diren, zooran gau bat pasatuko dutela erabaki dute. Esan eta egin; handik bi egunera

zoorra doaz lagun biak eta bertan jazotakoak biltzen dira liburuan... bertako animaliekin dituzten enkontru eta elkarrizketak. Izan ere, zoorra sartu bezain laster zeuden ezkutalekutik irteteko esango die ahots batek iluntasunean: "Neu naiz, elefantea. Jumbo naiz, edo hala esaten didazue zuek. Ez al zenekiten zooko animaliak hitz egiteko gai direla gaeuz? Ba, orain badakizue".

Eta Jumbo elefantearekin hasita zooko hainbat animaliarekin egongo dira Mino eta Ricardo, baita hauek kontatutako zenbait istorio ezagutu ere.

Rodarik primeran lortzen du irakurlea harrapatzea. Narrazio arin eta elkarritzaketaz josiak, estilo arinean idatziak; istorio labur eta interesgarriak eskaintzen dizkigu, gizakioi eginiko kritikak horietako asko, pentsarazteko modu-

koak gehienak eta une atsegina igarotzekoak guztiak.

Maite Mutuberriaren ilustrazioek ere laguntzen dute liburuaren irakurketa errazten; islatzen dutenagatik, baina baita ere eginda dauden moduagatik, haren estilo goxo eta irudikatzailean.

Zalantzarik gabe, Gianni Rodariren lan hau guztiz gomendagarria da -aspaldi euskaraz argitaratu ziren eta egun agortuak dauden beste asko bezala- maisu italiarrak duen estilo eta bizitasun apartagatik. Haren testuek beti bilatu izan dute irakurlearengan atsegina, baina baita ekitera bultzatzeko asmoa ere. Gizarte hobe eta zuzenago baten alde aritzeko helburua du eta hori, oraingoan, animalien ahotik ezagutuko dugu liburu interesgarri eta eder honetan. ●